



astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

11.zk 2017 • 5e



D

O

B

Felix Mugurutza Montalban

Durangaldeko HERRI-IZENAK

Lurraren bihotz taupadak



 **Ikuspegia Garaitik.** Argazkia: Txelu Angoitia

Gauza gutxi dugu bizitzan toponimia bezain gozagarri. Toponimia inorena izan barik guztiona delako. Ezin du diruak erosi, ezin da metatu, baina hor dugu, eskura, behar eta gura dugun guztietan.

Leku izenak liluragarriak dira, bai, gehienetan kontziente izan barik asmatu eta ezarri zirelako. Eta batzuek bide laburra egin badute ere, beste batzuek, sortu ziren egunean inolaz ere susma zitezkeen iraupen luzea lortu dute, urte, mende edo milurtekoak atzean utzita.


Maite ditugu, egunero arnasten ditugu baina... ez dakigu gauza handirik haietaz, gutxieneko informazio hori ere ez zaigulako heldu: noiztik ditugun, nork jarri zituen, zertarako eraiki ziren, irauteko asmorik ote zuten, inposatuak izan ziren ala ez...

Baina bistan da toponimia lurralde batean mendeetan bizi izandako komunitate bati lotzen zaiola eta

komunitate horri dagokiola. Bestela esanda, gu gara toponimia eta toponimia gu gara, azken finean, gure mundua interpretatzeko isla historikoa delako.

Gainera, ez da materiala, ezin daiteke ukitu, ez da existitzen: norberaren eromenaren ondorioa da, baina eromen kolektiboa, haluzinazioetan baino sentitzen ez ditugun izen horiek gisa-komunitate batek partekatzen dituelako, hari dagozkio. Eta abstrakzio hori beste gizaki batzuekin partekatzen dugun unetik bertatik hasten gara sentitzen toponimia horren parte.

Eta horrela ulertu behar dugu jarraian oso laburki gainbegiratuko dugun Durangaldeko toponimia: gure arbasoek mendeetan utzitako ondare linguistiko eta kulturala, egiatan gure irudimenean baino existitzen ez dena baina herri edo eskualde baten lurrairekin konexio emozionala eta identitatekoa ematen diguna. Goazen ba...



Durangaldea

Lehenik eta behin zehaztu beharko genuke Durangaldea zer den, ni bezalako kanpotarrentzat ez delako erraza ulertzea. Izendapenaren atzealdean dugun “-alde” amaierak adierazten digu lurralde hori ez dela oso definitua, beharren arabera egokitu daitekeela. Oso baliabide erabilia gure toponimian, beti ere, izenaren nukleoa zein den argi utzita: Durango.

Egungo Durangaldea, gaztelaniazko “Duranguesado”, behinolako Durangoko Merindadea da. Merindadeak dira garai zaharretako antolamendu politiko-administratibo sistema bat. Elizateek baino ez zuten parte, hiribilduek ez, azken hauek euren foru propio eta ezberdinak zituztelako. Batzarrak, jakina den bezala, Gerediaga izeneko leku gogoangarrian egiten ziren.

Durangoko merindadea ziren Abadiño, Berriz, Mallabia, Mañaria, Iurreta, Garai, Zaldibar, Arrazola, Axpe, Apatamonasterio, Izurtza eta San Agustin Etxebarria. Hiribilduak Durango, Ermua, Otxandio eta Elorrio ziren eta azken honek San Agustin integratu zuenez (1630), merindadetik kanpo geratu zen San Agustin. Bestetik, Axpe, Arrazola eta Apatamonasterio zaharrek Atxondo udalerria osatzen dute, Axpe-Atxondo ere deitu izan zena. Amaitzeko, Zornotzako merindadekoa zen Amorebieta-Etxano udalerria ere integratuta dago gaur egungo Durangaldean. Baina gure herriz herriko bisitatxo toponimikoan ez dugu kontuan hartuko, erreferentzia bezala hartuko dugulako 1876. urteko Durangaldea, hau da, Bizkaian integratu zenean zeuden herriak.



Abadiño da euskarazko izena eta bere gaztelaniazko baliokidea, 1983. urtera arte ofiziala, *Abadiano* izan zen.

Erdal formak mantendu du izenaren egitura zaharrena, jakina denez, euskararen barruan *-iano* amaiera horiek desegin egiten dira bestelako soinu-kate sinpleagoak eratzeko. Bestetik, *-iano* amaiera hori beti erlazionatu izan da Erromanizazioko garaiarekin, pertsona izen bati lotua, lur-jabetza edo *fundus*-a adierazten ei zuelako.

Ez da guztiz egiazkoa eta esan genezake gure toponimiako kasu gehienezan Erdi Aroan sortutako izenak direla.

Horrela gauzak, ez litzateke ausartegia izango “*abate*” hitzarekin erlazionatzea, hain zuzen ere, herri honen leku-izena XI. mendean estreinakoz datatzen dugunetik abade batzuk aipatzen direlako. Jakina da, bestetik, Erdi Aroan gure herrixketako asko jaio zirenean, eliza edo monasterio baten inguruan sortzen zirela, nahitaez. Bestetik, bigarren aukera bat nahi duenarentzat, erraza litzateke pertsona izen batetik eratortzea *Abatianum*>*Abatiano*>*Abadiano*>*Abadiño* edo antzeko hizkuntza-ibildidez.





Apatamonasterio, Arrazola eta Axpe elizateak batzean, Axpe-Atxondo izena zuen udalerrria eratu zen nahiz eta gaur egun Atxondo izen bakarra baino ez izan ofizial. Bere armarrian sorrerako hiru herrien ikurrak agertzen dira, oroigarri moduan. Dakigunez, "(h)atx" da "haitz" berbaren Euskal Herriaren mendebaldeko aldakia.

Atxondo izenari dagokionez, bistan da aurreko "(h)atx" bera dugula jatorrian eta "ondo" bat gehitu zaiola 'haitzarenondokoa' adierazteko.

Apatamonasterio

Apatamonasterio herri merindadekidea zen. Egund, 1962. urteaz geroztik, Atxondo udalerriko auzune bat da.

Aurreko herriaren izenarekin esaten genuena agerikoagoa da oraingo kasuan. Bere esanahia

'abadeenmonasterioa' delako. Izatez, hitz bitan idazten zen bere izen ofiziala 1860 arte: Apat Monasterio. Bitxia da jatorrizko "abate" hitzetik "apat(e)a" formara pasatzea. Latinean du jatorria hitz horrek eta, atzerago joanda, aramearrear. Azken honetan "abba" esaten zen, 'aita' adierazteko. Bitxia bada ere, hortik hartu zuen Sabino Aranak inspirazioa 1896an "aberri" hitza asmatzeko: 'patria', 'aitarenherria'.

Axpe

Axpe izenaren esanahia gardena da 'haitzaren beheko aldea', (h)atx + behe.

Arrazola

Aurreko kasuan bezala, aspaldiko Arrazola elizatea ere, Atxondo udalerrian integratu zen 1962. urtean. Bere izena *harri+zu+ola* konposiziotik letorke, Arrazuola antzeko izenarekin gertatu bezala. Zer esanik ez, amaierako "ola", 'burdinola' edo 'txabola' ez ezik, 'sarioia, kortabaso' ere izan daiteke.



Ikerketa sakonak egin izan dira *-iz* amaieradun izenez. Orobat onartuta dago pertsona izen bati lotuta daudela eta haren patronimikoa eratzen dutela.

Horrela Berriz, *Verrius* edo antzeko izena lukeen pertsona bati egiten dio erreferentzia, bere 'seme-a-

laba' edo 'haridagokiona' dela adierazteko. *Lupitz* (López) *Lupus*, 'otsoa' izeneko pertsonaia bati egiten dion bezalaxe. Amaiera bitxi horren jatorrian *-icus* partikula dago. Dokumentazioan «Vérriz» forma aurki dezakegu, 1929. urtera arte onartua zegoelako. Azentu grafikoa edo tildea 2002an galdu zuen.



Elizate historiko hau batu zuten Durangorekin 1926. urtean, hiribilduak handitzeko zituen espazio gabeziengatik. Halarik ere, ez zen herritarren gustukoa eta etengabe egon ziren desanexionatzeko ahaleginetan, 1990reko urtarilaren 1ean lortu zuten arte. Orduantxe onartu zuen egungo forma ofiziala, Durangorekin elkartu aurretik, «Yurreta» zelako.

Izenaren esanahiaz luze idatzi izan da. Batzuen esanetan 'hiru erreka tokia' da edo 'hiruerrotakoa'. Baina gehienbat onartzen dena da egun ezagutzen ez dugun "ihaurri" hitzetik bilakatzea, antza, landare mota bat.



Durango izena da eskualde osoko leku-izen ezagunena, hiztunen gehienak ezagutzen duena. Gainera, izen hori Amerikara esportatu zen eta Mexikon dugu izen bereko estatu bat, Victoria de Durango bere estatuburua.

Ezaguna izatean, era guztietako azalpen etimologikoak eman zaizkio, beti euskaratik gaztelaniara itzulita: ‘vegaentrealturas’, ‘helechal’ edo ‘más alla elagua’ besteak beste. Beste garai batzuetan, oso azalpen hedatua izan zen Durango toponimoa azken finean *D’Urango* zela, hots, “*de Urango*”, “*Uranga*” toponimoarekin zuen antzogatik. Eta horretaraino irudikatu bazuten, ez zitzairen ahalegin berezirik suposatzen *ur + hango* egiteko, hau da, ‘uraren bestaldean dagoena’. Zer esanik ez, herri azalpen horrek ez du batere ganorarik.

Jatorrian *Turanico* izena dugu eta, hortik, *Turanco* eta *Durango*. Beste batzuen arabera, *Duranius* pertsona izena genuke eta, bere jabegokoa, *Duranicus*. Honen amaiera lotu behar dugu Berriz herrian aipatu dugun *-icus* amaierarekin. *Duranicus* formatik Durangora iristea ez da zaila baina, itxura batean, erdararen barruko bilakaera da, antzeko beste izen batzuk (*Urzaniko*, *Aiaran*, *Araba*) bere horretan mantendu direlako *Urzango* modukorik sortu gabe.

Zehaztu gabe dugun Erdi Aroko data batzuetan (XIII. mendearen hasieran) Tabira de Durango izeneko hiribildua fundatu zen, Durangoren barruan eta hala aipatzen da bere 1372. urteko forua berrestean. Denbora pasa ahala, Tabira de Durango hura Villanueva de Durango izatera pasatu zen. Eta izen horiekin ezagutu zen XIX. mendera arte. Geroztik (1877), Durango izen hutsa baliatu zen. Tabira izenaz ez dago azalpen etimologiko sendorik, espekulazio hutsetik harago doanik.



1356an eta San Agustin Etxebarria elizatearen lurretan fundatutako hiribildua. Eta merindadean lekurik ez zutenez hiribilduek eta San Agustin eta Elorrio bat egin zuten 1630. urtean, merindade-tik kanpo geratu ziren biak.

Bere izena errazki lotu izan da garai guztietan “*elorri*” zuhaitz ezagunarekin, inork kolokan jarri gabe. Baina egia da *-io* amaiera horrek ematen digula zer pentsatu.

Eta halaxe da. Itxura guztien arabera, herri etimologia baten aurrean gaude eta horregatik dago islatuta elorri bat herriaren armarrarian. Baina egia-tan, seguruenik, horren atzean ezkututzen dena *Elorriano* bat da, pertsona izen batengan eraikia. Izenari atxikitako *-iano* amaierak bilakaera ezaguna izan du euskaraz: *-io*.

Eskualdeari erreferentzia eginaz, «Tavira de Elorrio» ere deitu izan zen (1877).





Gipuzkoako Debabarrena eskualdearekin harreman handia du, hurbiltasunagatik.

Bere izenaz hitz egitean azalpen bitxiak eman izan dira: *e+mugas*, 'lur + mugak', hau da, 'mugatik hurbil dauden lurrak'. Zer esanik ez, azalpen horrek ez du batere ganorarik eta toponimoaren atzean dagoena "*ermu(a)*" hitza da, 'populatugabekoa'. Jatorrian, "*eremus*" hitza dago eta hortik "*eremita*" edo "*ermita*" hitzak.

Dokumentaziora joz gero, *Érmua* edo *Hermua* ikusiko dugu idatzita. Baina hasierako "h" horrek ez du balio historiko edo linguistikorik, "er-" hasiera guztiak "*her-*" bihurtu zituelako gaztelaniazko moda batek. Hortaz, besteren artean, "*hermita*" topatzea duela mende batzuetako dokumentazio gehiengan eta ez "*ermita*" forma zuzena.

Izen ofizialak, erdal idazkeraren azentu grafikoa galdu zuen 1982. urtearen azken egunean: «Ermua» dugu geroztik.





Oiz mendiaren hegiko udalerrri hau “San Miguel de Garay” moduan zen ezaguna, gerora «Garay» soilarekin geratzeko. Egun, forma ofiziala (2004) Garai da.

Bere esanahia erraza da eta ‘altua’ esan nahi du, seguruenik, bere kokapenagatik. Beste batzuek “garai” (gaztelaniaz “hórreo”) berbarekin lotu nahi izan dute, hau da, ‘garai bat zuen Done Mikel eliza-ko herria’ baina ez dirudi ganorazkoa.



Elizate bat udalerrri bihurtua eta, besteren artean, XV. mendean arazoak izan zituzten mugekin, Durango handiaren lur beharrak aseezinak zirelako. XIX. mendearen amaiera arte «Yzurza» zen ohiko idazkera, gerora «Izurza» bihurtzeko. Euskal grafia duen egungo forma ofiziala 1997an onartu zen.

Bere izena, “izur” hitzetik dator, izatez, ‘kirrua, tolesdura’ baina, toponimoaren amaiera ikusita,

seguru asko egun ezagutzen ez dugun landare bati egiten dio erreferentzia. Amaierako “-tza” ezaguna da eta ‘askotasuna’ esan nahi du.





Mallabia, nortasun handiko bizigune ezberdinez osatutako udalerrria da, Goi Erdi Aroko populatzearen paradigma bihur daitekeena. 1982an onartu zen, erdal idazkerako «Mallavia» forma atzean utzita.

Bere izenaren etimologia ez da gardena eta askoren esanetan 'mailabi' da. Hala ere, amaierako "-a" horrek ez luke azalpen onik. Horregatik, "maila+ibi+a" dela uste izan da. Hau da, 'mailetakopasabi-dea' edo antzekoa.



Mendien kontra dagoen herria, elizate zaharra, eta Historiaurreko hainbat aztarna miresgarri duena. Bide nagusi baten parean egoteak oparotasuna eman zion, batez ere XVIII. mendien handitu eta egokitu zenetik.

Bere izenaren jatorria ezaguna da: "balnearia" dugu, hau da, 'bainuetakolekua'.



OTXANDIO


URIGUNE

OROIGARRI-HISTORIKOA

Udalerrri hau, hiribildua dela aipatzen da 1155az geroztik. Bere garrantzia, kokapen estrategikoari zor zaio, Urkiola mendatearen hegoaldean dagoelako, Arabarekiko mugan eta garraibide garrantzitsuen parean.

Bere izena, Abadiño izenaz hitz egitean esan bezala, jabetgoa adierazteko *-iano* amaierakoa da. Eta, gaztelaniaz bere horretan mantendu dena, euskarak bilakatu izan zuen. Horrela, *Otxandiano* modukoa zena, *Otxandiao* bihurtu zen lehenik geroko *Otxandio* euskal izenera iristeko. Forma hau da udalerrriaren izendapen ofiziala 1984. urteaz geroztik.

Esan bezala, *-iano* amaierak ez du nahitaez Erromanizazio garaikoa izatea suposatzen, sarritan esan den bezala. Aitzitik, esan genezake gure toponimiako kasu gehiengan Erdi Aroan sortutako izenak direla. Gure kasua da horretarako argigarriena, *Otxandio* edo *Ochandiano*, Erdi Aroko *Otsando* edo *Otsanda* pertsona-izenetatik letozkeelako. Eta hauek, zenbaiten iritziz, *otso* + *handi* formulatik.





Zaldibar, Durangaldearen ekialdean dago, Gipuzkoarekin mugan eta Zaldurrekaren inguruan artikulatzen da. Eta ibaiaren izenak emango digu herriaren izenaren azalpen ederra.

Izenak bere jatorria *zaldi + ibar* dela pentsatzera eraman gaitzake. Eta herri etimologia horrek bere isla izan du herriaren armarrian, zaldi bat duena.

Baina herriaren izena, errekarera bezala, «Zaldua» izan da. Areago, izendapen dantza egon da beti: «Zaldívar» «Zaldúa» izatera pasa zen 1877an, gero «Zaldívar» formara itzultzeko (1940). Euskal grafiaz idatzitako egungo izendapena 1982. urtean onartu zen.

Horrela gauzak, zintzoki planteatuta, ez dirudi zalantzarik dagoenik herriaren izenaren jatorria *zaldu(a) + ibar* konbinazioan dagoela esateko, hau da, 'Zaldu(ko)ibarra'. Amaitzeko, ezaguna da "zaldu" ('ibar-basoa') hitzak erdal "soto" hitzaren lehengusua dela, biek dutelako erro bera latinezko "saltus" berban.

Eta ez besterik. Bidaia laburra. Baina lasai: kalera irten eta aurki itzazu ondo-ondoan dituzun beste leku-izen batzuk. Hor daude, euren bihotz taupadak entzungo dituenaren zain.



Felix Mugurutza Montaban